




Jaun Done Jakuerako erromes baten hausnarketa



Jauna, Done Jakuerako bide ona egin nahi dut, pixkat lagundu behar didazu..

cucopegador@gmail.com

1- Goizero, egunsentian eguzkia irteten ari delarik, zuri eskaintzeko tarte isila EDEn dut. 15, 20 edo agian 30 minutu. Eskuzabal jokatu nahi dut zurekin, Jauna. Ene alaitasunak eta penak kontatuko dizkizut. Ene lagunenez eta familiaz mintzatuko natzaizu, sufritzen ari direnez, ene otoitzen beharrean daudenez. Zure lagun Done Jakueren irudia ikusten dudan guztietan asmo horiek betetzen lagun diezadala eskatuko diot. Ene ametsak eta ilusioak ere kontatuko dizkizut, bizitzan ditudan proiektuak; argia eman diezadazula eskatuko dizut. Ene fedez edo EDE gabezia ere bai. Honetan pixkat lagundu beharko didazu. Zure bizitzan eskaini zenigun eredia azaltzen duten ebanjelioaren orriak irakurtzeak lagunduko dit. Kristauen eta katolikoek fedez galdetuko dizut eta zer ikusirik duten zurekin, eta nirekin...

2- Aterpeetara iristen denean da bertzeekiko karitatea bizitzeko unea. Denekin atsegina izanen naiz eta gizalegez jokatu dut jabeekin. Ez dut eskale izan nahi, eskertu baizik. Badut garaia ene bizitzatik txorakeriak aldentzeko. Zuregatik egiten dudan bide honetan ene bizitza garbitu nahi dut pixkat. Erne ibiliko naiz lagun urkoei bidea emateko, dutxan, sukaldean, esertzerakoan... ez dut oherik hoberena hartuko. Hainbat une dut lagun urkoak maita ditzakedala zuri erakusteko... Aurkako iritzia begirunez zainduko ditut; gutxi hitz egiten eta asko entzuten jakinen dut. Bertze erromesen egoeraz kezkatuko naiz, ene beharrean diren oharkabeen ez izateko... Kontu honetan zuk erran zenituen eta Pablo Deunak

gogorarazi zizkigun hitzak dakarzkiz: “Alaitasun handiagoa dago ematen hartzen baino”.

3- Arratsaldean eliza irekiren bat bilatuko dut, eta ez dira asko. Elizkizunen arbi jakinen dut. Jaunartzea bizi izaten saiatuko naiz. Meza (Jesusen azken afaria berritzea da), Jaunartzera hurbilduko naiz (zure gorputza eta odola) Eliza Katolikoarekin, aita santuarekin bat eginik, eta arima bekatu larrietatik arbi izanen dut. Ezin dizut harrera egin jaunartzean zu ezagutu gabe edo arima zikinez... Azpikeria litzateke.

4-Don Jakuerako bide honetan ene fedea bertze lagun batzuenarekin parekatu ere egin nahi dut. Edozein elizburu, kapera edo katedraletan bilatuko dut apez bat (Done Jakue lehenbiziko hamabiko hartako bat izan zen) eta ene kristau bizitzaz mintzatuko natzaio, ene hanka sartze, poz, arazo, nahi, zalantza eta erroreer. Zerbait ikasi eta erroreren bat konponduko dut, bai horixe. Kontuan izan arazoetatik erdiak kontatu orduko desagertzen direla. Ene bekatuen aitorten egokia ere egingen dut, eta katolikoa ez banaiz ere, gutxienez ene hutsak adieraziko ditut. Etxera berriturik itzuli nahi dut eta hobia izateko asmo tinkoa dudalarik.

5- Ohartu naiz dagoeneko bide hau hobia dela motxila arinez. Baita bizitzako bidea ere, horregatik bide honetan zehar edo biderean amaieran behartsuren bati diru laguntza emanen diot, ene bizitzako benetako altxorra zu zarela argi erakusteko, Jesus.

Agur Maria, Jaungoikoaren ama, eta Done Jakue apostolua, lagundu bide honetan!

